

Argumentazioaren teoriaren historia*

History of argumentation theory

PELLO HUIZI

ILCLI (UPV/EHU)

LABURPENA. Lan honen helburua, historian zehar garatu diren argumentazioari buruzko teoria nagusiak —edo horietako batzuk, hobeto esanda— aurkeztea da. Antzinako Grezian abiatuko gara: sofistak eta, batez ere, Aristoteles hartuko ditugu gogoan. Gero, Erroma zaharrera joango gara: Zizeronen eta Kintilianoren lanen oinarriak azalduko ditugu, eta baita egile ezagunik ez duen *Rhetorica ad Herennium*en ere. Hurrengo atala argumentazio-teorien gainbehera luzeari eskainiko diogu. Ondoren, Stephen Toulminek eta Chaïm Perelmanek 1958an argumentazioari buruz egindako ikerketak, eta horiek eragin zuten berpizkundera, aipatuko ditugu. Eta, azken atalean, egile horien lan aitzindariari jarraituz, azken hamarkadetan egin diren ekarpenik garrantzitsuenak aztertuko ditugu.

GAKO-HITZAK: argumentazioa; argumentazio-teoriak; erretorika; sofistak; Aristoteles; Perelman; Toulmin; pragma-dialektika; argumentazioa hizkuntzan.

ABSTRACT. *The aim of this work is to present the main theories on argumentation developed through history, or rather some of them. We will start from ancient Greece, taking into account the sophists and above all Aristotle. Then, we will go to ancient Rome, to show the basics of the works of Cicero and Quintilian and also the Rhetorica ad Herennium, due to an anonymous author. We will offer the next section to the long declining of argumentation theory. After that, we will make reference to the renaissance of the studies on argumentation led by Stephen Toulmin et Chaïm Perelman, in 1958. And, in the last section, following the pioneer work of those authors, we will analyse some of the relevant contributions appeared in the last decades.*

KEYWORDS: *argumentation; theories of argumentation; rhetoric; sophists; Aristotle; Perelman; Toulmin; pragma-dialectics; argumentation in language.*

Nola aipatu / How to cite: Huizi, Pello (2024). "Argumentazioaren teoriaren historia", *Gogoia*, 24, 117-145. (<https://doi.org/10.1387/gogoia.26077>).

ISSN 1577-9424 - eISSN 2444-3573 / © UPV/EHU Press



Lan hau *Creative Commons* Aitortu 4.0 Nazioartekoaren lizentziapean dago

1. Sarrera

Zibilizazio greko-erromatarra oraindik jaio berria zen argumentazioaren azterketa teorikoa lehen urratsak egiten hasi zenean. Hori ez da harritzeko: hain da berezia argudiatzeak duen lekua gure bizitzan. Caroline Golder (1996) argudiozko jokabidearen ikertzaile frantsesak esana da, geure denboraren zati handi bat argudiatzen ematen dugula. Eta diskurtso politikoak, maite-diskurtsoak, egunkarietako “zuzendariari” atalera bidaltzen diren gutunak, gure egun guztietako eztabaida gehienak eta abar aipatzen ditu horren frogagarri. Baina, gainera, eranstean du ezen azalpen edo deskripzio hutsa dela esango genukeenaren azpian ere askotan argudio bat ezkututzen dela. Ildo horretan, urrutirago doa Oswald Ducrot (1980) hizkuntzalaria,¹ esaten duenean enuntziatuak, edozein enuntziatuk nonbait, “argudiozko balioa” duela eta balio hori, neurri handi batean behinik behin, ez dagoela enuntziatuaren informazio-edukiaren mende.² Halsallek uste du Ducroten ikusmoldean argudioa dela nagusi informazioaren gainetik; hortik, ondorio hau eratorriko omen litzateke: pentsatzea argudiatzea dela (1989: xiv). Eta, ez ote da hala, erantsiko nuke nik neuk, zeren gure barne-gogoetak, askotan behinik behin, ez al dira argudiatze etengabekoak? Gerry Spence (1995) abokatu eta idazle iparramerikarrak ere gizakion bizitza eztabaida handi bat bezala ikusten du. Argudiatzea, bestalde, beharrezkoa dela gaineratzen du; beharrezkoa gauza askotarako: laguntzeko, jendea ohartarazteko eta gidatzeko, maitatzeko, sortzeko; hitz batean esateko, beharrezkoa izateko.

Aipatu ditugun iritzi horiek kontuan izanik, ez da harritzeko jende ikasia argudiatzearen gainean gogoeta egiten goiz hastea, eta goiz ekitea fenomeno hori aztertzeari. Harritzekoa argumentazioaren historia teorikoa nolakoa izan den da, Breton eta Gauthierrek (2000: 3) dioten bezala, “bihurgunetsua” izan baita. Izan ere, bizi eta indartsu abiatu ondoren, makalaldi luzea izan baitu, XX. mendearen erdialdera indarberriturik bere bideari ekin dion arte.

Breton eta Gauthierren (*ibid.*) arabera, argumentazioan arreta jartzea bi faktore mota hauei lotua dago: faktore teorikoak eta faktore soziologikoak. Faktore teorikoak esatean, argumentazioaren teoria bat lantzen hasteak eskatzen duen giro intelektuala adierazi nahi dute, kezka intelektualak alegia, logikari eta gogatzeko edo pertsuasioari buruzkoak adibidez. Faktore soziologikoak, aldiz, giro sozialari dagozkio, hau da, argumentazioarekiko interesak “gizarte laiko, demokratiko eta bakezalea” eta, aldi berean, “fidagaitza” (*ibid.*: 4) eskatzen du.

¹ Anscombrekin batera “argumentazioa hizkuntzan” izeneko teoria, aurrerago tarte txiki bat eskainiko dioguna, landu zuen.

² Jatorrizko hizkuntzan: “la valeur argumentative d’un énoncé est, dans une large mesure, indépendante de son contenu informatif” (Ducrot 1980: 15).

Argudiatzeari buruzko teorizazioaren jatorria hiru jakintza arlo hauetan jartzen da gehienetan: logika (frogatzea), dialektika (bilatzea) eta erretorika (gogatzea edo pertsuaditzea). Aristotelesi aitortzen zaio jakintza arlo horiek era sistematikoan lantzen hastearen meritua. Izan ere, arlo horiei lan aitzindari bana eskaini zien Aristotelesekin: *Lehen Analitikoak*, *Topikoak* eta *Erretorika*.

Argumentazioaren teorialarien artean —teoria asko baitaude, ez bakarra— eztabaida sortzen duten hainbat gai daude. Horietako bat argudioan logikari eta erretorikari aitortu behar zaien lekuaz da. Zenbait teorialarik, Perelman eta Olbretchts-Tytecaren (1958) eta Toulminen (1958) urratsei jarraituz, logikaren eragina gutxiesten dute: horien arabera, logikak zerikusi gutxi izan du argumentazio informalaren azterketan. Beste teorialari batzuek, aldiz, tradizio erretorikoari kendu nahi diote garrantzia. Bigarren talde horretan argudioaren ikuskera arauemaile edo normatiboa duten teorialariak daude; horien artean, pragma-dialektikoak dira aipagarrienak, van Eemeren eta Grootendorst (1987, 1992, 2004; van Eemeren *et al.* 1996) buru direla. Horien ustez, argudio arrazionala arrazionala ez denetik bereizteko irizpideak garatzea da argumentazioaren teorialarien egitekoa. Arrazoi horregatik, helburua argumentazioaren teorizazioan erabiltzeko moduko “insight” edo in-tuizioak sortzea denean, balio handiagoa aitortzen diote logikari —eta dialektikari ere bai— erretorikari baino.

Erretorika gutxiesteko normatibistek duten arrazoiak bistakoa da. Erretorikaren gaia, betidanik, eztabaida arrazionala izan dadin bete behar diren erregelak ematea baino gehiago, honako hau izan da: entzuleak, askotan arrazoizko iritziak emateko gai ez diren entzuleak, gogatzten eta konbentzitzen eraginkorra izateko bideak eta ildoak markatzea. Ildo horiek arrazionalak ez diren teknikak erabiltzera bultzatzen dute hizlaria. Horrelako teknikak dira *ethos* eta *pathos* hitzek adierazten dituztenak. Beraz, ulergarria da normatibista batzuek, van Eemeren eta Grootendorstek adibidez, erretorika beren argumentazioaren teoria arrazionalistaren negatiboa balitz bezala aurkeztea behin eta berriz.³

Baina, ulergarria izan edo ez, aurkakotasun hori ez ote dago dikotomia faltsu batean erroturik? Arrazionaltasuna normatibisten monopolioa ote da? Eta arrazionaltasunik eza erretorikoen monopolio? Egia da erretorikariek printzipio hau dutela gidari, alegia, argudioek entzuleei eragin behar dietela. Baina horrek ez du esan nahi arrazionaltasuna baztertzen dutenik. Neurri batean behintzat, baliteke eraginkortasuna azpimarratzea eta arra-

³ Kontu honekin zerikusia duen beste eztabaida-iturri bat argumentazioaren balio edo indar etikoarena da. Teorialari batzuek argudioa manipulazioari kontrajartzen zaion aldetik aztertzen dute, hau da, konbentzitzeko erabiltzen den arrazoi “ona” behar du izan; beste teorialari batzuentzat, aldiz, gogatzeko erabiltzen den arrazoi, “ona” izan ala ez, argumentazioaren arloan sartzen da. Azken horien kasuan, argumentazioak eta manipulazioak ez dute elkar baztertzen.

zionaltasuna errespetatzea bateragarriak izatea. Eta bada uste duenik tradizio erretorikoaren ezaugarrietako bat, Grezian erretorika hasi zenetik, eragina izateko ahalegina eta arrazionaltasunarekiko errespetua bateratzea izan dela.

Egia da, antzinatean hasi zenetik beretik, erretorika kontzeptuak eztabaida biziak eragin dituela (honetaz, ikus, adibidez: Barthes 1994; Fumarioli 1999; Reichelt 2008). Antzinatean, aldekoen iritziz, gizakiak eskura zezakeen antze gorenaren erretorika; aurkarien ustez, aldiz, ezin gehiagoko arriskua zen balio moralentzat; azken horiek beldur ziren ongi trebatutako erretorikariek ez ote zituzten manipulatu beren entzuleak. Platonek, adibidez, *Fedron* onartzen zuen filosofiak berak ere, bere jakinduria gizar-tean hedatzeko, erretorika beharrezko zuela; baina hori erretorika ona zen, erretorika filosofikoa, benetako erretorika, zeinen helburua egia baitzen. Erretorika mota horri *psikagogia* esaten zion Platonek. Bazen, ordea, Platonen arabera, beste erretorika klase bat txarra zena, zeinek egia ez baizik egiantza baitzuen helburu; erretorikarien, Gorgiasen, sofisten erretorika zen hori. Barthesen arabera, “erretorika onaren eta txarraren arteko aurkakotasuna, Platonen erretorikaren eta sofistenaren artekoa, paradigma zabalago batean sartzen da: alde batetik, balakuak, zurikeriak, faltsutzeak; bestetik, atsegin emateko modu orori uko egitea, laztasuna” (1994: 533). Gaur egun bertan ere, bestalde, erretorikarena gai eztabaidatua da. Ez al dugu esaten, edo entzuten, askotan politikarien diskurtsoak erretorika hutsa direla? Bestetik, hor daukagu euskaraz “erretorika” hitza, erretorikaren alde negatiboak azpimarratzen dituen eta *Euskal Hiztegia*⁴ honela definitzen dena: “Hizketa luze eta aspergarria”. Erretorika, noski, beste hainbat jakintza edo zientzia bezala, onerako edo txarrerako erabil daiteke; erabiltzen duena osoa den ala ez da kontua. Platonek, erretorika onaren egitekotzat giza arazoetan egia bilatzea jarritz, erretorika bere-berea zuen esentziatik hustu omen zuen: hori uste du Danblonek (2003) aipatzen duen Barbara Cassinek (1990). Aristotelesek, Platon bere maisu izanaren pentsaera baztertuz, erretorika baliagarria eta onuragarria dela dio, zeren “egiazkoak eta zuzenak diren gauzek berez baitute beren kontrakoei nagusitzeko joera” (1355a), eta geroxeago honela argudiatzen du erretorikaren alde: “norbait ezgai izatea bere burua bere gorputz-adarrez baliatuz defendatzeko lotsagarria bada, zentzugabekeria litzateke hitzaz baliatzeko ezigaitasuna lotsagarri

⁴ Bide batez esan dezadan hiztegi horretan bertan ematen den “erretorika” hitzaren definizioak —ongi hitz egiteko edo idazteko antzea edo erregela multzoa— ez duela zerikusirik Aristotelesek erretorikaz ulertzen zuenarekin, ezta oraingo teorialariek ulertzen dutenarekin ere. Erretorikaren eta argumentazioaren ikuspegitik askoz hurbilago dago, esaterako, *Oxford Advanced Learner's Dictionary*n irakur daitekeen definizioa: “the art of using language in an impressive way, especially to influence people in public speaking”. Argumentazioaren analisi teorikoa baztertutik egon zen mende luzeetan erretorika ulertzen zen modua islatzen du *Euskal Hiztegi*ko definizioak.

ez izatea, azken hau gizakiak gorputzaren erabilera baino marka bereizgarriagoa duenez” (1355b).⁵ Aristotelesek, ez dago zertan esan, ez du egia alde bat uzten, ezta horri balioa kentzen ere, baina egia aurkitzea zientziari dagokio, edo logikari, berak analitika deitu zuenari. Giza arazoei dagokienez, ordea, bidezkotzat jotzen zuen iritziaren eta probabilitatearen gainean bermatzea (Corbett 1986).

Argumentazioari dagokionez, teorialariak bat ez datozen beste puntu bat argudioaren definizioa da. Breton eta Gauthierrek (2000: 6) diotenez, “ez dago argudioaren definizio unibertsalik”, eta argumentazioaren teoriak ikertzen dutena ez dago ongi zehazturik. Gauthierri (2007) harrigarria gertatzen zaio zenbat eta zenbat esanahi desberdin dauden argumentazioaren ikerkuntzan argudio eta argumentazio hitzentzat. Argumentazio konzeptuan bat ez datozen adibide gisa Perelman eta Toulmin aipatzen ditu. Horien bi lanak, argumentazioaz ari direnak, urte berean agertu ziren eta biak jurisprudenzian oinarritu ziren beren teoriak eratzeko. Baina Perelmanen argumentazioaren ikusmoldea Descartesen demostrazioaren kontra zihoan; Toulminenak, aldiz, “osatu egiten zuen eta barne hartu logika” (2007: 2).

2. Antzinatea

2.1. Grezia

Argudiatzearen gainean xx. mendearen bigarren erdian sortu eta garatu den pentsamendu teorikoak greziar antzinatean ditu bere sustraiak, Aristotelesengan bereziki. Baina filosofo handi honen lana eta ideiak ikusi aurretik, komeniko da bi hitz esatea greziar sofistei buruz. Izan ere, Plantinek (1996) dioenez, argumentazioaren gaineko gogoeta egiten hastea Aristotelesi aitortzen bazaio ere —“père de toutes choses” (gauza guztien aita) deitzen dio—, lastima omen litzateke hori sofisten kaltean izatea.

2.1.1. Sofistak

Esanda dago gorago, gizarte jakin batek, bertan argumentazioa ikergai izaten hasiko bada, zenbait ezaugarriren jabe izan behar duela. Laikotasuna, demokrazia eta bakezaletasuna hartuko ditugu kontuan hemen.

Hasteko, beraz, laikotasuna, edo Fumarolik (1999: 5) dioen bezala, “erlijioak hiria gobernatzen duen bakarria izateari uztea”. Adituek, K.a. vi. eta

⁵ W. Rhys Roberts (Aristoteles 1994/1998) eta G. A. Kennedyren (Aristoteles 1991) itzulpenak hartu ditut kontuan; A. Bernabéren gaztelaniazko itzulpenak (Aristoteles 2001) badirudi ez duela hemen ongi jasotzen Aristotelesek esan nahi zuena.

v. mendeetan, garrantzi handiko aldaketa nabaritzen dute greziarren mundu-ikuskeran: ordu arte zurruna eta dogmatikoa zen greziar gizartea (mundua eta gizarte-antolamendua jainkozko antolamenduaren isla eta jainkoek agindua zen) bestelako azalpen eta esplikazioen bila abiatzen da. Greziarrak galderak egiten hasten dira, munduaren osaeraz eta gizarte-antolamenduaz batik batik. Hori, batez ere, K.a. v. mendean gertatzen da. Eta galderek eta eztabaidek erantzunen eta iritzien balioari buruz galdetzen hasia ekarriko dute. Gisa honetako galderak: “Nola jakin iritzi bat ‘ona’ dela?”, “Noiz esan daiteke zerbait ‘egia’ dela?” Horrelako galderak egiten lehenengoak sofistak izan ziren.

Beste ezaugarri bat demokrazia da. *L’argumentation* izeneko liburuaren lehenbiziko kapituluak —“Ce que l’argumentation doit aux sophistes” da horren izenburua, hau da, argumentazioak sofistek zor diena—, Plantinek (1996: 4) baieztapen hau egiten du: “Giza zientzia guztiak dituzte beren sortze-mitoak”. Eta argumentazioarena, bere jatorria K.a. v. mendean duenez, zaharretakoa dela erantzen du. Siziliako greziar hirietan 463.⁶ urte inguruan gertatu zenaz ari da, edo hobeki esateko, gertatu omen zenaz. Izan ere, badirudi ez duela erabat sinesten horretan, “On raconte” (esaten da) hitzez ematen baitio hasiera kontakizunari eta geroxeago dio kontaktzen den horrek mereziko lukeela egia izatea. Reichelt (2008: 4) berdin egiten du: “It is reported” (esaten da). Breton eta Gauthierrek (2000) ez dute, nonbait, zalantzarik, “est attesté” baitiote, hau da, ziurtaturik dago. Barthesek (1994), besterik gabe, dio erretorika, metahizkuntza den aldetik, jabego-epaiketatik sortu zela. Dena dela, batzuek eta besteek funtsean gauza bera kontatzen dute. Bi tiranok —Barthesek horien izenak ere ematen ditu: Gelon eta Hieron— mendean hartua omen zeukaten greziar Sizilia, eta lurak desjabetu omen zituzten beren soldaduei emateko. Esan den garai horretan, biztanleak tiranoen kontra matxinatu ziren eta haiek agintetik botatzea lortu zuten. Orduan, ezin konta ahala epaiketa zibili eman zitzaion hasiera, lurren jabeek indarrez kendu zitzaientza erreklamatzeko baitzuten. Beren helburua lortzeko ahalegin horretan, Corax eta Tisiasengana jotzen zuten; horiek, izan ere, epaitegiko eztabaidetan ongi moldatzeko arauak ematen zituen aurreneko metodoa landu zuten. Erretorikariaren lehen definizioa ere —erretorikalaria pertsuasio-sortzaile edo pertsuasio-eragile dela— badirudi Corax eta Tisiasen eman zutela, edo bietako batek, zeinek argi ez badago ere (Reichelt 2008).

Greziar Siziliako beste biztanle batek, Gorgiasen, beharbada Tisiasen ikasle izanak, sartu zuen Grezian erretorika. Reichelt berak dioenez, 427an aldatu zen Atenasera eta haren elokuentziak hunkitu egin omen zituen gre-

⁶ Autoreak ez datoz bat kontatzen dena zein urteren inguruan gertatu zen esaterakoan: Barthesek 485 aipatzen du, Breton eta Gauthierrek 450-440, Reichelt 463 eta Plantinek 467.

koak. Atenasera iritsi zen unea oso egokia zen erretorikaren garapenari begira; izan ere, garrantzi handiko aldaketak gertatu baitziren Atenasko politikan, bertako hiritarrei parte-hartze handiagoa ematen zitzaielarik hiriko arazoetan. Eta horrek hitzaren nagusitasuna dakar. Bai Siziliako epaiketetan, bai Atenasko agoran, hitza nagusitzen zaie gainerako botere-tresnei. Hor dugu argudiatzearen gaineko gogoeta garatzeko behar omen den gizartearen hirugarren ezaugarria: bakezaletasuna, edo hitzaren aldeko hautua, indarra bazterturik.

Gorgias sofistatzen eduki zuten, *Euskal Hiztegian* “sofista” sarreran irakur daitekeen esanahiarekin: “filosofia eta erretorikako maisua, jendauerrean hitz egiteko eta eztabaidetan garaile irteteko antzea herriz herri erakusten ibiltzen zena”. Platonek eta Sokratesek ez zeukaten Gorgias filosofiako maisutza, ezta Isokrates ere, nahiz eta honek bere burua sofistatzen eta aldi berean filosofiako irakasletza zeukan. Isokratesek, bestalde, lehen eskola ireki zuen greziarrei politika- eta lege-kontuetan hitz egiten irakasteko.

Plantinen (1996) arabera, sofistak “benetako jakintsuak” ziren. Beren garaiko —K.a. v. mendea eta iv.aren hasiera— ikuspuntu etiko eta sozialak gupida gabe kritikatu zituzten. Izan omen dira haien obra Ilustrazioko filosofoenarekin erkatu dutenak. Platonen kritikek haien pentsamendua eta praktika desitxuratu izana omen da haien fama txarraren arrazoia. Sofisten kontrako kritika zuzengabetzat daukate Breton eta Gauthierrek (2000) ere. Funtsezkotzat daukate haiek argumentazioaren teoriari egindako ekarpena, ahaztu gabe hizkuntzaren gainean egin zuten gogoeta. Plantinek beste lan batean ere, *Essais sur l'argumentation* (1990) izenburua daramanean, esaten digu sofistak irudi negatiboa berrikusia izan dela, eta hainbat autore aipatzen ditu, horien artean Koyré (1962) eta Marrou (1948),⁷ sofistak lanaren alde onak azpimarratzen dituztenak.

Beraz, argumentazio arrunta aztertu nahi duenak sofistakaren lorpenak kontuan hartu behar ditu. Plantinek haiek azpimarratzen ditu: “antifonia”, paradoxa, probablea eta dialektika.

Antifonia: edozein argudio irauli ahal da eta diskurtso orori kontra-diskurtso bat dagokio, beste ikuskera baten fruitu dena eta beste errealitate bat aurrean jartzen duena.

⁷ Marrouk, adibidez, honela dio:

Ohora ditzagun arbaso handi hauek, goi-irakaskuntzako lehen irakasleak... Sokratikoen, aurreiritzi kontserbadorez beterik zeudenen, sarkasmoak gorabehera, nik haiengan aurrea errespetatuko dudana da espezialistak izatea, irakaskuntza haientzat lanbidea baitzen eta horren arrakasta komertzialak horren berezko baliola eta eraginkortasun soziala frogatzen baitu.

Paradoxa: sen onarentzat hizkuntza “gardena” da, errealitatea islatzen du. Paradoxaren indarra honetan datza: agerian ipintzen duela hizkuntza era autonomoan ari dela errealitateari dagokionez.

Probablea: giza arazoei dagokienez, probablea erkidego edo komunitatearen ohiturei dagokie. Ideia honek aukera ematen du estereotipoak, eta baita tipoak ere, bereizteko. Era honetan, abian jartzen da gizakiek gizartearen erakusten duten jokamoldeari buruzko gogoeta zientifiko profanoa.

Dialektika: sofisten praktika “dialektika” hitzaren esanahiaren araberakoa zen. Hemen, eta argumentazioari buruzko lanetan oro har, dialektikak dialogo arrazoitu mota bat esan nahi du, arau zehatz batzuen arabera egina.

2.1.2. *Aristoteles*

Bi galdera mota daude argumentazioa estudiantzeko interesaren abiapuntuan. Batetik, bat ez datozen ikuspuntuen aldeko argudioak erkatzeak galdera hau egitea ekarri zuen: “Zein da argumentazio ona?” Bestetik, politikan eta lege arazoetan parte hartzeak galdera honi bide eman zion: “Zein da argumentazio ona, eta batez ere eraginkorra?” Argumentazioaren gaineko gogoeta orokor hau logika, dialektika eta erretorika klasikoetan gorpuztu zen.

Aristotelesek obra sail bat eskaini zion arrazoibideari. Obra horiek guztiak *Organon* delakoaren barnean bildu zituen. Hona Aintziartek (1987) ematen digun azalpena *Organon* lanei buruz:

Organon edo “Tresnak” deitzen dira logika-liburuak, hau da, zientziaren moldatzeko erabilbideak. Hor daude bereziki kategoriak, topikoak, analitikoak [lehen eta bigarren analitikoak] eta, azken hauen artean, delako silogismo famatua. XIX. mende erdiraino ez da beste logikarik eza gutzen. Algebraren bidez sortu “logika formal” 1850. urte irian agertzen da.

Aristotelesek ez du *logika* hitza erabiltzen liburu hauek izendatzeko. Termino hori, itxura denez, Zizeronen garaian agertu zen eta, orduan ere, *logica* hitzak logika baino gehiago dialektika adierazten zuen. Liburu hauek ez dira zientzia jakin batez ari, baizik zientzia berezietan egingo den arrazoibidearen logikaz. Beraz, *Organon* delakoa ikastea zientzia eta filosofia ikasketentzako propedeutika moduan ulertu behar da.

Aristotelesek arrazoibidea egiten den hiru arlo bereizten ditu: zientzia, dialektika eta erretorika (ikus taula). Arrazoibide zientifikoak, arrazoibide dialektikoak eta arrazoibide erretorikoak silogismoa erabiltzen dute hirurek. Aristotelesek honela definitzen du silogismoa *Topikoak* liburuan: “Zenbait gauza suposatuz gero, beste zerbait berria dena bere egite hutsez eta nahitaez sortzen duen argumentua da silogismoa” (*Lehen Analitikoak* I 24618).

1. taula

Aristotelesen hiru argudio motak bakoitza bere ezaugarriekin

| ARGUDIOAK | Frogagarriak | Dialektikoak | Erretorikoak |
|-------------------|--------------------|-----------------|--------------------------|
| Helburua | Ziurtasuna | Onargarritasuna | Gogatzeko gaitasuna |
| Premisen estatusa | Nabarmen egiazkoak | Onargarriak | Entzuleria gogatzeko gai |
| Inferentzia | Baliioduna | Baliioduna | Entzuleria gogatzeko gai |
| Teoria | Logika | Dialektika | Erretorika |

Ikus ditzagun orain argudio mota bakoitzaren ezaugarriak:

— *Argudio zientifikoa*. Zientziak froga bidez, frogatuz, dihardu. Silogismo zientifikoa frogagarria da, demostratzailea. Zergatik? “Premisa egiazko eta lehenbizikoetatik” abiatzen delako. Egiazko premisa horiek gauzen izaeratik, errealitatetik, hartzen dira.

— *Argudio dialektikoa*. Argudio mota hau nola ari den, *Topikoak* izeneko liburuetan azaltzen da. Silogismo dialektikoa eta silogismo zientifikoa desberdintzen dira “hark ondorioak premisa probabletatik ateratzen dituelako” (*Topikoak*, 100a 25). Aipatua da “probable” hitzaren definizioa: “Iritzi probableak denek, edo gehienek, edo jakintsuek, eta azken hauen artean guztiek edo gehienek edota nabarmen eta ospetsuenek onartzen dituztenak dira” (100b 20).

Zertarako da dialektika? Aristotelesen arabera, funtzio bat baino gehiago ditu. Batetik, betekizun zientifikoa du, zeren zientzietako frogaezin, aporia eta lehen printzipioei buruzko eztabaida antolatzea baitagokio. Baina, bestetik, trebatzen ere laguntzen dio ikasleari: metodo honen jabe izateak argudiatzeko trebeagoak egingo gaitu eta hizketakideak ekarri duen kontraesanari aurre egiteko gaituko gaitu. Van Eemeren eta Grootendorstek (1996) diotenez, eztabaida edo debatearen teoria edo artea da dialektika Aristotelesentzat. Hor legoke dialektikaren funtsezko onura.

Argudio dialektikoa eta argudio sofistikoak ez dira nahasi behar. Bi argudio mota horien arteko desberdintasuna honetan datza: “sofisma” edo silogismo sofistikoak bi eratan huts egin dezake: 1) substantzia edo mamiagatik: orduan “probableak iruditu arren, egiatan probableak ez diren iritzietatik abiatzen da”; 2) formagatik: orduan “itxuraz bakarrik ondorioztatzen du iritzi probabletatik edo probable diruditenetatik”. Arrazoibide dialektikoko premisa probableak gerta daiteke faltsuak izatea, baina faltsutasun horrek ez du arrazoibide sofistikoaren ezaugarri den “berehalakotasunik”.

Topikoak eskuliburu moduko bat da jendaurreko eztabaida edo debate saioetarako. Liburuaren parterik handiena *topoi* (latinez: *loci*) izeneko argumentazio-teknika batzuez ari da. *Topos* delakoa (hortik “topiko”

hitza) aurkariak bere argudioak atera ditzakeen “leku” da. Hona “topiko” hitzaren definizioa UZEIk argitara emandako *Filosofia. Hiztegia*:

Tokiari dagokion kontzeptua da hau eta *leku arrunta* adierazi ohi duen iritzi bati deritza “topiko”. Filosofian pluralean erabiltzen da gehienetan. Aristotelesen *Topica* edo *Libri Topi corum* izeneko zortzi liburuen gisara. Topiko hauek argumentu probableaz dihardute eta konklusio dialektikoa nola atera litekeen erakusten dute.

Van Eemeren eta Grootendorsten arabera (1996), *topos* hitzak erregela, lege edo prozedura bat ere adierazten du, taktikazko laguntza bat tesi baten aldeko nahiz kontrako argudio bat prestatzerakoan. Plantinek (1996) tresna bat dela dio, hizkuntza-tresna bat, gauza hauek egiten dituen: zenbait hitz elkarrekin lotu, diskurtso posibleak antolatu eta erkidego jakin batean “onargarriak” eta koherenteak diren diskurtsoak definitu. Azken autore honek “interesgarri” hitza hartzen du adibide gisa. Noiz da interesgarria gauza bat? Erantzun hau eman daiteke: Interesgarriak ez diren gauzetatik bereizten duten ezaugarri batzuk ditue-nean.

Eman dezagun, adibidez, “Film hori interesgarria da” esaten diozula lagun bati. Hori argudiotzat har daiteke, ondorio bat baino gehiago ondorio sail bat ateratzeko bide ematen duena: “ikusi behar duzu”, “erosi behar duzu”, “oskarren bat ematea mereziko luke”... Interesgarria dela esatean, ez da filmaren ezaugarri bat seinalatzen; “leku komun” edo topiko (*topos* bat) aipatzen da soil-soilik, hizkuntza-erkidego batean ondorio batzuk ateratzeko bide ematen duena.

— *Argudio erretorikoa*. Aristotelesek estuki lotzen du hau dialektikarekin: “Erretorika dialektikaren analogoa da” (*Erretorika*, 1354a). Dialektikan bezala, “aurkaria norberaren tesira biltzeko gai izan behar da” (1355a) erretorikan ere. Erretorikako tresnak dialektikakoen antzekoak dira: “indukzioa, silogismoa eta silogismo itxurazkoa” (1356b).

Erretorika, Aristotelesentzat, oratorian (hau da, besteengan eragina izateko asmotan egiten den hitzaldian) jendea gogatzeko bide posibleak aurkitzeko ahalmena da. Hitzaldia zein testuingurutan egiten den kontuan hartuz, hiru mota edo genero hauek bereizten ditu: *genus iudiciale* (epaiketa-egoerari dagokio), *genus deliberativum* (egoera politikoari dagokio) eta *genus demonstrativum* (jai- edo zeremonia-egoeran gertatzen da, non pertsona edo gauza bat goresten den, edo kondenatzen).

Hiru generoetan, entzuleria da kontuan hartu behar den faktore nagusia. Horregatik dio Aristotelesek, entzuleen ezaugarriak kontuan hartzen dituelako hain zuzen ere, arrazoibide deduktiboa egokien erabil daitekeen entzuleria adituak direla; arrazoibide induktiboa, aldiz, adibideak eskaintzen direnez, egokiagoa da eskola gutxiko jendeari hitz egiten zaionean.

Gogatzeko edo konbentzitzeko bi baliabide mota bereizten ditu Aristoteleseak: “tekniko” edo “artifizialak” eta “teknikaz kanpoko” edo “ez-artifizialak”. Azken horiek hitzaldia bera hasi baino lehenagoko materialak dira eta ez dute zerikusirik hizlariaren abileziarekin. Hizlariak ez du hemen ezer asmatzen; berak lege, dokumentu, lekukoen adierazpen edo susmagarri diren aitorenpenetara jotzen du. Beste baliabide motak hizlariaren trebetasuna eskatzen du.

Hiru kategoria bereizten ditu Aristoteleseak baliabide teknikoaren artean:

- 1) *Ethos* delakoa —hau da, aiurria, izaera— erabiltzen dutenak; hizlariaren aiurriari dagozkio, hizlariak jendearen “oniritzia” irabazteko erabiltzen dituen prozedurak dira; zuzenean ala zeharka, bere zentzu ona eta jakitea, bere bertutea eta borondate ona adieraztea. Aristotelesen ustez, hau da jendea gogatzeko biderik eraginkorrena, eta arrazoi hau ematen du: hizlariarengan uste osoa duen jendeak hark esan dezakeena onartzeko joera izango du. Hizlariaren *ethos* delakoaren garrantzia honela azaltzen du: hitzaldiaren gaiak izan behar du arrazoi-bide praktikoa erabiltzea eskatzen duena, hau da, zentzuzko erabaki bat hartu behar da; arrazoi-bide praktikoa, geure munduan sortzen zaizkigun benetako egoeretan, ziurgabetasuna du berekin; pertsona jakintsu eta eskarmentuko handikoen aholkua ongi etorriko litzateke; horrelako jendeen aholkua kontuan hartzeak eskatzen du horien zintzotasunean uste ona izatea; beraz, aiurria edo izaera gorabehera handikoa da hizlaria entzuleen erabakietan eragina izaten ari denean.
- 2) *Pathos*, edo sentimendua, erabiltzen dutenak; entzuleen emozioez baliatzen da hizlaria. Ikuspegi arrazionalista batetik, argudiatzean jendearen emozioez baliatzea susmagarria da beti. Beste ikuspuntu batetik, ordea, emozioek bidezko lekua dute argudioan, bereziki norberaren leialtasun eta konpromisoek eragin zuzena dutenean erabaki batean. Emozioak argudioan izan dezakeen lekuari buruzko anibalentzia hori Aristotelesen *Erretorikan* ere aurkitzen du Waltonek (1992). Izan ere, lan horren lehen liburuaren lehen kapituluan, emozioak sorraraztea gehiegi azpimarratzen dutenen kontra ageri da. Epailea ez dela bere onetik atera behar, dio, harengan haserrea, gorrotoa edo errukia pitzaraziz (1354a). Gero, ordea, liburu horren beraren bigarren kapituluan, *pathos* delakoa *logos* eta *ethos* bezain onargarritzat ematen du argudiatze erretorikoaren baliabide gisa.
- 3) *Logos* delakoa erabiltzen denean, argudioen bidea aukeratzen da entzuleak gogatzeko; argumentazioa argudioen (adibide eta entimemen) “indarrean” oinarritzen da.

Azkeneko hori, *logos*, argudiozkoa da, hortaz; beste biak, *ethos* eta *pathos*, ez. Gogatzeko, pertsuaditzeko, hizlariak bi argudiozko baliabide dauzka: silogismo deduktiboak eta silogismo induktiboak. Silogismo deduktibo erre-

torikoei *entimemak* esaten die Aristotelesek, eta silogismo induktibo erretorikoei *adibideak*. Entimema, Aristotelesentzat, ondorioa probable baizik ez diren premisetatik ateratzen duen silogismoa da; bestela esateko, egiantzekoa baizik ez den zerbaiti dagokion silogismo moduko bat da. Adibidea, arrazoitzeko modua den aldetik, indukzioaren forma erretoriko arruntetako bat izango da; izan ere, kasu partikularrei ondorio orokorrak aplikatzeko aukera ematen du. Hona Aristotelesek jartzen dituen adibideak (*Erretorika*, 1357b): Pisistratok zaintzaileak eskatu zituen beretzat eta, lortu zituenean, tirano bihurtu zen; gauza bera egin zuen Teagenesek Megaran, baita beste batzuek ere. Orain Dionisio zaintzaileak lortu nahian dabil beretzat; horren asmoa zein den ez badakigu ere, adibide horietatik atera dezakegu Dionisiok tirano bihurtu nahi duela.

Aristotelesek garrantzi handia ematen dio indukzioari, eta arrazoibide zientifikoetan bakarrik ez, baizik baita arrazoibide dialektiko eta erretorikoetan ere. Gainera, Aristotelesek aurkezten dituen indukzio gehienak ez dira adibide bat edo bestetan baizik oinarritzen. Eta, egia esan, argudio arruntean horrela jokatzekoa da: adibide bakar batetik abiatzen da handik erregela orokor bat ateratzeko. Dena dela, Aristotelesek entimemari ematen dio lehentasuna: “adibideez baliatzen diren diskurtsoak ez dira gutxiago sinesgarriak, baina txalotuagoak dira entimemak erabiltzen dituztenak” (1356b).

2.2. Erroma

Aristotelesek 335ean sortu zuen Atenasen bere akademia. Handik 300 bat urtera, beste loraldi bat izango du erretorikak, Erroman oraingoan. Erromatar erretorikariak erretorika arteari buruzko lanak sortzen hasten dira. Autore ezagunenak Zizeron eta Kintiliano dira, baina horiekin batera *Rhetorica ad Herennium* izeneko liburuaren autore anonimoa aipatu behar da. Liburu horretaz dio Barthesek (1970) Aristotelesaren erretorikaren laburpen —*digest* dio berak— moduko bat dela. *Ad Herennium* delakoa, Zizeronen *De inventione* eta *De oratore*, eta Kintilianoren *De institutione oratoria*, lau lan horiek finkatuko dituzte luzaroan pentsatzeko eta argudiatzeko arauak. Autorea ezagutzen ez den *Rhetorica ad Herennium* eta Zizeronen *De inventione* liburuen eskuizkribu gehiago iritsi zaizkigu erretorikaz ari den beste edozein liburu klasikorenak baino: antzinatean oso ezagunak eta ospe handikoak zirelako seinale. Bi liburu horiez esan daiteke *technai* hutsak direla, hau da, ikasleek erabiltzen dituzten liburuak trebetasun erretorikoak ikasteko. Erretorikaren hastapenak, oratoriaren hiru motak (judiziala, deliberatiboa eta epidiktikoa), diskurtso erretorikoa moldatzeko bost urratsak (*inventio* —zein den defendatuko den gaia, zein hori defendatzeko erabiliko diren argudioak—, *dispositio* —nola antolatu argudioak—, *elocutio* —zein diren figura erretoriko egokienak—, *memoria* —buruz ikasteko teknikak; lekuen metodoa, adibidez—, eta *pronuntiatio* —hitzaldia egitea ahotsa eta keinuak erabiliz—) eta abar eskaintzen ziren

hor. Alde handia dago lan hauen eta Aristotelesen *Erretorikaren* artean, azken horretan askoz zabalagoa baita eztabaidatzen diren giza arazozen multzoa. *De oratore* Zizeronek erretorikaren gainean idatzitako beste lan handi bat da eta hor, bai, hor gai sail handia sartzen du, bere ustez erretorikalariei dagozkienak. Dena dela, erretorikari omen dagozkion gauza asko esan egiten du, baina demostratu gabe. Aristotelesek, aldiz, erretorikak politikan, epaitegian edo etikan zuen garrantziaz ari zenean, frogak ere eskaintzen zituen. Barthesek (1970: 538-539) Zizeronen erretorikan ezaugarri hauek ikusten ditu, beste batzuen artean: batetik, Zizeronek dena zor dio Aristotelesi, baina desintelektualizatu egiten du, atseginari leku eman nahi dio espekulazioan; bestetik, Zizeronek erromatartu egin nahi du erretorika; eta, azkenik, Zizeronen erretorikak *elocutio* delakoaren garapena iragartzen du.

Barthesen iritzia da (*ibid.*: 539) Kintilianok sailkatzaile espiritua zuela, baina, aldi berean, sentibera zela. Ospetsua izan zen bizi zela eta hil eta mende asko geroago ere estimu handitan eduki zuten, esate baterako, Lutero, Erasmok eta Racinek. Kintilianoren lan nagusia *De institutione oratoria* da. Bertan, epaitegiko estrategia erretorikoak aurkezten ditu, beste edozein erretorikari klasikok baino zehazkiago aurkeztu ere. Hamabi liburutan banatua, heziketa-plan osoa eskaintzen du. Lehen liburua lehen hezkuntzaz ari da; bigarrena, erretorikaren definizioaz eta onuragarritasunaz; hurrengo bostak, *Inventio* eta *Dispositio* deritzanez; ondorengo hirurak *Elocutio* delakoaz; hamaikagarrena, garrantzi gutxiago duten erretorikaren atalez, Oroimenaz eta (hitzaldia) Egiteaz alegia; eta, azkenik, hamabigarrena hizlariak behar dituen nolakotasun moralez ari da.

3. Argumentazioaren beheraldia

Beheraldi luzea, egia esan. Eta harritzekoa da: erretorikak gora egin eta irakaskuntzan bete-betean sartzen denean, orduan egiten du behera argumentazioaren alderdi teorikoekiko interesak. Breton eta Gauthierrek (2000) bi mugimendu bereizten dituzte gainbehera horretan: bata barnekoa, kanpokoak bestea. Batetik, erretorikan bertan, gero eta garrantzi handiagoa ematen zaie *dispositio* edo argudioen antolaerari eta mintzaera edo elokuzioari. Bestetik, kanpoko mugimenduari dagokionez, demostrazio arrazionalak ordeztuko du argumentazioa, Descartesengandik hasita batez ere. Erretorikak, horrela, ezinbestekoa duen *inventio* edo gaiaren eta argudioen bilaketaren teoria galtzen du.

Izan ere, Barthesek (1994) *néo-rhétorique* edo erretorika berriarena deitzen duen garaian, hau da, K.o. II. mendetik IV.era bitartean, irakasgai ez ezik, arte ere bihurtzen da, arte zentzu modernoan, hau da, ez *techné* gisa baizik erti gisa ulertua. Erretorikak bat egiten du poetikarekin, eta idaztearen teoria eta literatura-formen altxor bilakatzen da. Bat egite horri funtsezkoa deritzo Barthesek

(1994: 536), honen arabera hor egongo bailitzateke literaturaren ideia-erria. Baina, Breton eta Gauthierrek (2000: 31) erantzen dute, fusio horrek kalte egin zion erretorikan argumentazioak duen lekuari. Erretorikak heziketaren oinarritzko osagai izaten segituko du, baina ez da eskolako ariketa besterik izango.

Erdi Aroan, bi multzotan antolatzen dira irakasgaiak: *Trivium* delakoa, batetik, non gramatika, dialektika edo logika eta erretorika sartzen diren, eta *Quadrivium*, bestetik, musikak, aritmetikak, geometriak eta astronomiak osatzen dutena. Triviuma —hau da hemen interesatzen zaiguna— laster logikaren mende geldituko da. XI. mendetik XV.era arte iraungo du egoera horrek, Barthesen (1970) arabera. XVI. mendearen lehen erdian, Margolinek (1999: 191) “erretorika humanistaren goren aldia” deitzen duena gertatzen da. Hizlaria, edo *orator* delakoa, poeta eta filosofoa omen zen Europako humanistentzat —Tomas Moro, Vives, Melanchton eta Erasmorentzat, adibidez—. Aldi horrek, ordea, gutxi iraungo du eta erretorikak arre-erretorikaren elokuzioan jarriko du berriz ere, hori apainketa moduan ulertuz.

Argumentazioari ez zaiola ia lekuri uzten ongi erakusten duten bi iritzi ekarriko ditugu hona: bata Descartesena, bestea Pascalena. Honela dio Descartesez *Metodoari buruzko diskurtsoaren* hasieran: “Eta oharturik gai berari buruz jende jantziaren artean iritzi ezberdin ugari egon daitekeela (ezin egon den arren egia izango den bat baino gehiago), ia-ia faltsutzat hartu nuen egiantzekoa baino ez zena” (22. or.). Descartesen ikusmoldea oso urruti dago Aristotelesenetik, honek, giza arazoetan, bidezkotzat jotzen baitzuen iritzian eta probabilitatean oinarrituz argudiatzea.

Pascalen testu bat ere ekarri nahi dut hona, haren *De l'art de persuader* liburutik hartua:

Mundu guztiak daki bi sarbide edo ate daudela iritziak ariman sartzeko eta horiek arimaren bi ahalmen nagusiak dira, adimena eta borondatea. Berezkoena adimenaren sarbidea da, ez bailirateke sekula onartu behar egia frogatuak baizik; baina ohikoena, naturaz kontrakoa bada ere, borondatearena da; izan ere, munduan diren gizakiak, ia beti, atseginak, eta ez frogak, eramaten ditu sinestera. Bide hau behekoa da, duintasunik gabekoa eta arrotza: horregatik, mundu guztiak gaitzetsi egiten du.

Kontrajartze horrek lekuz kanpo uzten du argumentazioa. Alde batetik, frogatzeko artea dago; logikari dagokio hori arautzea eta geometria da horren erdua. Beste aldetik, atsegin egiteko artea dago, arrazoizkoa ez denez, berehala gutxietsia.

Argumentazioa, horrela, zientziaren zehaztasunaren eta manipulazio-tekniken artean harrapatua dagoen zerbait da. Izan ere, ezin da zientziaren eremuan kokatu. Batetik, ez da prozedura logikoez baliazera mugatzen. Bestetik, aurkako bi punturen arteko adostasunik ezaren gunea da. Ildo horretan, kontuan hartzekoak dira Descartesen hitz hauek ere:

Bi gizakik gauza beraz kontrako iritziak dituzten guztietan, segur egon bietako batek huts egiten duela. Gehiago oraindik, ez bata ez bestea ez dira egiaren jabe; zeren, haietako batek gauza argi eta garbi ikusiko balu, hori aurkariari azaltzeko eta honek onartzea lortzeko gai izango bailitzateke.

Perelmanen arabera, Descartesen arrazionalismoak espikatzen du erretorikaren gainbehera. Eta ez da ahaztu behar Aristotelesez geroztik erretorika zela argumentazioaren zientzia. (Perelmanek etengabe elkartzen ditu erretorika eta argumentazioa; esanahi handia du haren *Argumentazioaren liburuak* azpititulu hau eramateak: *Erretorika berria*.) Horregatik, Aristotelesen tradizioari berriz heldu eta “erretorika berria” izena mereziko duen zerbait moldatzea izango da Perelmanen ahalegina. Erretorika izatea nahi du, ez frogatzeko artea, ezta atsegin egiteko artea soilik ere. Horrek esan nahi du Pascalen bi terminoren arteko aurkakotasunaren orde, hiru terminoko sistemari eman diola aukera: frogatzea, argudiatzea, gogatzeta.

4. Hogeigarren mendea: 1958. urtea

Erretorika irakaskuntza eta kulturatik kanpo gelditu zen XIX. mendearen bukaeran (Frantzian 1902an desagertu zen, Breton eta Gauthierren arabera), eta erretorikarekin batera argumentazioaren praktika. Aspaldi hasitako deskalifikazio-prozesu baten amaiera izan zen. Erretorikak XVIII. eta XIX. mendeetan izan zuen gainbehera azaldu nahian, horren eragile moduan zenbait baldintza historiko seinalatzen dituzte John Bender eta David Wellberyk, Compagnonek (1999) aipatuak. Hona horietako bizpahiru: diskurtso zientifiko idealaren ezaugarritzat gardentasuna, neutraltasuna eta objektibotasuna ezartzea; literatur diskurtsoari, aldiz, originaltasuna, indibidualtasuna eta subjektibotasuna eskatzea; komunikazioaren eredutzat, ez hitza eta diskurtsoa, baizik liburua eta inprimaturik dagoena hartzea.

Dena dela, XIX. mendearen amaiera aldera desagertu ondoren, XX. mendearen bigarren partean bere errautsetatik berpiztu-edo egiten da erretorika. Mila bederatziehun eta berrogeita hemezortzian bi obra erabakigarri agertu ziren argumentazioari buruz: *Argumentazioaren tratatua: Erretorika berria*, bi autore dituen, Chaïm Perelman eta Lucie Obbrechts-Tyteca, aurrenekoa ia beti bakarrik aipatzen bada ere, eta *The Uses of Argument* (Argudioaren erabilerak), Stephen Toulminek idatzia. Obra hauen eraginez, argumentazioari buruzko azterketa abiatuko da bigarren mundu gerra ondoko urteetan. Toulminek arrazoizkotasuna ulertzeko modu berri eta ez-formala proposatu zuen: hor testuingurua, diskurtsoa gertatzen den testuinguru edo “eremua”, funtsezkoa izango litzateke. Perelmanen erretorika berriak entzuleak argumentazioaren eremura ekarri zituen berriz, eta argudiatzeko teknika eraginkorren zerrenda bat eskaini zuen. Argumentazioaren gaineko ikerkuntza moderno-

rentzat, hala ere, garrantzi handiagoa izan zuten bi gertakari hauek: argumentuari ikuskera interakzionaletik begiratzen hastea, eta logika formaletik aldentzea.

Bai Toulminek, bai Perelmanek, epaitegian argudiatzen den modua hartu zuten argumentazioarentzako eredutzat. Mugarri diren bi liburu hauek egin zituzten lehen urratsak argumentazioa hizkuntzazko jarduera gisa estudiatzeko.

Van Eemeren eta haren lankideen arabera (1997), erretorika berriaren ekarpen nagusia argumentazioa eztabaidaren eremura eramatea izan zen, entzuleriari hitz egin behar zaion eremura hain zuzen. Erretorika maiz jo izan da arrazoiz kontrakotzat, edo gutxienez arrazoiz kanpokotzat. Baina erretorikari buruzko teoria modernoak erretorika (gogatzeko teknika eraginkorren azterketa) eta dialektika (denbora luzean zentzuzkoa denarekin, arrazoizkotasunarekin eta egiarako joerarekin lotu dena) zorrotz bereiztetik ihes egiten du. Hona erretorikaren azterketa berriaren bereizgarri batzuk: argudiatzea testuinguru jakin batean kokatzen delako ideia eta entzuleriari begira jartzearen garrantzia. Galdera teoriko nagusiak, berriz, hauek dira: nola iritsi aurkako ikuspuntuak adostera hizkuntza erabiliz?, eta, erretorikaz baliatuz, nola hurbilarazi entzule errealki idealki arrazionalak diren entzuleen jarreretara?

4.1. Chaïm Perelman

Oso aintzat edukia den ekarpena egin zioten argumentazioaren teoriaren garapenari Perelman belgikar filosofoak eta haren aberkide Olbrechts-Tyteca gizarte-zientzia eta ekonomia irakasleak. Perelman bera logika, etika eta metafisika irakaslea izan zen Bruselako Unibertsitatean. Aurrena zuzenbidea ikasi zuen eta gero filosofia. Perelman eta Olbrechts-Tyteca 1947an hasi ziren elkarrekin ikerketa egiten erretorika eta argumentazioaren arloan.

Argumentazioari buruzko beren teoria *erretorika berria* deitu zuten Perelman eta Olbrechts-Tytecak. Erretorika klasikoak argudiatzea gertatzen den hiru egoera bereizten zituen: (1) kontua aukera politikoak finkatu edo arautzea den egoera, (2) gizarte-arauak eta arau moralak indartu nahi diren egoera, eta (3) helburua gaitzesgarriak diren jokabideak zigortzea den egoera.

Perelmanek auzitegiko hizkuntzari ematen dio lehentasuna. Horrela, eguneroko arrazoiketaz aztertze baliagarri izango den arrazoizkotasunaren paradigma sortu nahi du, paradigma logikoa baztertuz. Hona Perelmanen ideia nagusiak:

- Argudiatzea gertatzen den egoeraren jatorrian gatazkaren bat dago. Alde horretatik, ez du logikoek gustuko dituzten egoeren antzik. Logikoen gatazkak bi urratsetan konpontzen dira: 1) “defini dezagun”,

- 2) “kalkula dezagun”. Gatazka, Perelmanen iritzian, ez dator elkar ez aditze hutsetik. Horregatik, “zuzen” kontzeptuak eginkizun nagusia du Perelmanen teorian. Bi eratorri-familia daude hitz horren gainean eraikiak: “zuzentasuna” eta “zuzenetsia”.
- Entzuleei eragitea. Nozio honek desberdintzen ditu argudioaren gaira hurbiltzeko bide logikoak eta bide erretorikoak. Azken horiek entzule batzuekin ari dira; haiek, entzulerik gabe. Bestalde, egiaz baliatu gabe definitzen du Perelmanek argumentazioa. Argumentazioaren helburua entzuleengan eragina —handiagoa zein txikiagoa— izatea denez, argumentazioari ez dagokio alde aurretik ezarritako egia batera hurbiltzen ahaleginean aritzea.
 - Argudioaren indarra. Ikuspegi klasikoan, zenbat eta gehiago uzten dizun egiara hurbiltzen, orduan eta indartsuagoa da argudioa. Perelmanek zuzen(tasun) erregela jartzen du egiaren orde: zenbat eta hurbi-lago jartzen gaituen zuzena denetik, orduan eta hobea da argudioa. Entzuleriaren ideiak ematen du hemen argudioen ebaluazioa beste era batean planteatzeko aukera. Ebaluazioaren arazoa ez da argudioetan jartzen, argudioak onartzen dituzten entzuleengan baizik.
 - Arrazoi praktikoa, arrazoi frogagarria. Argudiatzeak, Perelmanentzat, betekizun hau du: ekintza mailan sortzen diren eta agenteen balio-sistema bateraezinen ondorio diren gatazkak konpontzea. Horregatik ez du onartzen arrazoiaren definizio hertsia eta zorrotzik.

4.2. Stephen Toulmin

Toulminen *The uses of argument* (Argudioaren erabilerak) liburuak 1940 eta 1950eko hamarkadetakako ingeles filosofiaren ezaugarri zen “hizkuntza-analisiaren” postulatu metodologikoen kutsua du. Toulminek berak dioenez, bere obra Austin eta beste batzuen ideiak argumentazioaren eremuari aplikatzeraz dator. Eragin hori tituluan bertan ere ageri da. “Uses” (erabilerak) hitza harako Wittgensteinen “esanahia erabilera da”⁸ eslogan famatu haren oihartzuna da. Esaera horretan, hitzaren esanahia hitzaren erabilerarekin lotzen du Wittgensteinek. Obra gutzia filosofia horrek gidatzen duela esan daiteke.

Toulmin argudiatze-jardun edo -praktika konkretuak aztertzearen alde agertzen da. Bestalde, *logika* eta *argumentazio* hitzen “erabilera arruntetara” itzultzea proposatzen du. Hitz horiei logikari formalistek ematen dieten esanahi espezializatu eta unibokoari “argumentazioaren eremuen” aniztasuna kontrajartzen dio. Aniztasun hori adierazten du tituluan “uses” hitza pluralen agertzeak.

⁸ “For a large class of cases —though not for all— in which we employ the word ‘meaning’ it can be defined thus: the meaning of a word is its use in the language” (PI 43).

Toulminen eredia:

- Hasteko esan behar da Toulminen eredia justifikatzailea dela. Ikus dezagun gauzak nola gertatzen diren: (1) hitzun batek baieztapen edo adierazpen bat egiten du (ikuspegi, iritzi, hobespen... bat azaltzen du), (2) hizketakideak zalantzan jartzen du baieztapen hori, (3) lehen hiztuna bere baieztapena justifikatu edo haren aldeko arrazoiak eman beharrean aurkitzen da. Kontua da hori nola egiten duen, hau da, zein diren baieztapen horren alde erabiltzen duen teknikaren ezaugarriak.
- Toulminen terminologian, proposatzen den eta eutsi egin behar zaion ikuspegiari *claim* deitzen zaio. Nola defendatu eraso egin zaion adierazpen edo “claim” (laburturik C) bat? Modu bat adierazpena oinarritua dagoen gertakari batzuk, *datuak* (D), eskaintzea da. Hortaz, bigarren urratsa, argumentazioan, adierazpenari eusten dioten datuak produzitzea da. Har dezagun Toulminen beraren adibidea:

Harry Bermudetan jaio zen → Harry britainiarra da

(D)

(C)

Harry britainiarra delako adierazpenak (C) zerbaitetan oinarritua egon behar du. Bermudetan jaio zela (D) da oinarri edo euskarri hori. Baina, noski, hizketakideak ez du beti nahitaez onartuko datuaren edo datuen zuzentasuna. Eta hori onartuko balu eta datu gehiago eskatuko ez balu ere, beste zerbait galde lezake ondoren: ea nola daramaten datuek adierazpena.

- Hirugarren urratsa, orduan, datu horiek adierazpenaren euskarri moduan erabiltzeko justifikazioa edo bermagailua (*warrant*, W) da. Justifikazioaren adierazpidea erregela, printzipio edo horrelako zerbaiti dagokion perpaus orokor bat izan daiteke. Perpaus orokor honek, funtsean, forma hipotetikoa izango du (“baldin [*datuak*] orduan [*adierazpena*]”). Bermagailuak zubiarena egiten du datuen eta adierazpenaren artean. Aurreko adibidean:

Harry Bermudetan jaio zen → Harry britainiarra da

(D)

(C)

zeren

Bermudetan jaiotzen dena britainiarra izango baita

(W)

Bermagailu edo igarotzeko lege batean oinarritua dago, orain, datua eta, horrela, argudio bihurtzen da, adierazpenari eustera datorren arrazoi on, alegia. Datuak eta bermagailua honela bereizten ditu Toulminek (1958: 100): “datuak esplizituki ekartzen dira, bermagailuak inplizituki”. Adibidean, bermagailua salbuespenik gabeko erregela balitz bezala jarri da. Erregelak salbuespenak izango balitu, justifikazioaren indarra ahulagoa izango litzateke, eta zein diren *salbuespen-egoerak*, erregela *gezurtatzen* dutenak, seinalatu beharko litzateke. Horrelakoetan, adierazpenari indarra kendu behar zaio *kalifikatzaile* (*qualifier*, Q) baten bidez. Bermagailuaren indarra onartzen ez bada berehala, *euskarri* edo *sendogarri* bat (*backing*, B) behar da. Horrela, bada, beste hiru urrats beharrezko izan daitezke argumentazioan. Toulminen argumentazioaren eredu zabaldu edo luzatuan sei elementu sartzen dira. Lehengo adibidea erabiliz, hona sei elementu horiek:

2. taula

Toulminen ereduaren osagaiak

| | | |
|----------------------|--|---|
| <i>Claim (C)</i> | Harry britainiarra da. | Zertan oinarritzen zara hori esateko? |
| <i>Datum (D)</i> | Harry Bermudetan jaio zen. | Eta, nola iristen zara horra? |
| <i>Warrant (W)</i> | Bermudetan jaiotakoa gehienetan britainiarra izango da. | Hala ote beti? |
| <i>Rebuttal (R)</i> | Ez, baina bai gehienetan. Gurasoak kanpotarrak baldin badira edo bera amerikar bihurtu bada, orduan erregela ez da aplikatzen. | Orduan ezin zara horren kategorikoa izan atera duzun ondorioan, ala bai? |
| <i>Qualifier (Q)</i> | Arrazoi duzu: probablea besterik ez da. | Ederki, eta zergatik uste duzu Bermudetan jaio direnak gehienetan britainiarrak direla? |
| <i>Backing (B)</i> | Lege honetan esaten da hori: ... | |

Silogismoa baino konplexuagoa den eskema hori diskurtsoaz arduratzen direnek, eta oro har “logika ez-formala” deritzan korrontean kokatzen direnek, onartu eta are onetsi egiten dute. Logika informala Estatu Batuetan eta Kanadan garatu zen 1970eko hamarkadan. Liburuak arrakasta izugarria, Toulmin bera harrizterainokoa, izan zuen Estatu Batuetan.

Atal hau bukatuko dut Perelmanek Toulminen ereduari egindako bi kritika aipatuz. Horietako bat zen ez dituela kontuan hartzen entzuleak; bestea, baliagarria dela eztabaida gai faktual edo egitatezkoen gainean denean, baina ez eztabaida balio-kontuez ari denean. Kritika horiek *Quarterly Journal of Speech* aldizkarian egin zituen Perelmanek 1984an; Corbetten (1986: 32) lanetik jaso dugu informazio hori.

5. Hogeigarren mendea: azken hamarkadak

Van Eemeren, Grootendorst eta Kruijgerrek 1987ko lan batean diotenez, argumentazioaren azterketan nabarmena izan da oraindik ere eragin handikoak diren Toulmin eta Perelmanen ekarpenen itzala. Horien lanen xedea izan zen logika formalaren orde bester irtenbide bat aurkitzea eguneroko argumentazioa aztertzeko. Bai bata bai besteak epaitegiko arrazoibidearen prozedura arrazionalak erabiltzen dituzte abiapuntu gisa. Van Eemeren eta honen lankideen arabera, ordea, ez Toulminek, ez Perelmanek, ez zuten asmatu gainditu nahi zituzten problemei irtenbidea aurkitzen. Eta hori, partez, logikaren kontrako isuria izateagatik gertatu omen da. Beste arrazoi bat, autoren horien beren arabera, testuinguruari eta egoerari lotua dagoen informazioa baztertuz, arreta argumentu isolatuetan jartzea izan da. Ez Toulminek, ez Perelmanek, ez dute erabat aitortzen argumentazioa lehenik eta behin hizkuntza erabiltzeko modu bat dela eta, alde horretatik, pragmatikaren ikuspegitik heldu behar zaiola. Horregatik, Toulminen eredia eta Perelmanen erretorika berria ez omen dira benetako alternatiba argumentazioa aztertzeko logika formalak eskaintzen duen bidearentzat.

Azken urteetan, erretorika klasikoari gero eta balio handiagoa aitortu zaio literatura profesionalean. Erretorika ez-arrazionala edo arrazoigabea, eta are arrazoiz kontrakoa, delako ideia berrikusi egin behar dela gero eta gehiago onartu da. Ondorioz, erretorikaren eta dialektikaren artean jartzen zen alde nabaria ez da orain hain garbi ikusten.

Askok uste dute erretorika, gogatzeko teknika eraginkorren estudioa den aldetik, eta dialektikaren ideala den arrazoizkotasuna bateraezinak direla. Beste batzuen ustez, funtsezko ezberdintasunak daude arrazoizkotasuna ulertzeko modu erretorikoaren eta modu dialektikoaren artean, baina ez dute onartzen lehenengoa bestea baino gutxiago denik.

xx. mendearen bigarren zatian sortu eta landu diren argumentazioaren teoria ugariak nolabait sailkatu nahian, Breton eta Gauthierrek (2000) bi multzotan banatzen dituzte: anglofono edo ingelesdunak eta frankofono edo frantsesdunak. Lehenbizikoen artean, bi mota handi bereizten dituzte: argudio berezi batzuen analisiak direnak —hemen “falazien” azterketa (Hamblinek *Fallacies* izenburuarekin 1970ean argitaratu zuen funtsezko lanaz hasiera eman ziona) eta logika informala sartzen dituzte— eta teoria orokor izateko asmoa duten saioak —Trudy Govier, Douglas Walton, Charles Villard, eta Frans Eemeren eta Rob Grootendorsten lanak aipatzen dituzte hemen—. Frantsesez landutako azterketetan lau azterbide bereizten dituzte aipatu autoreek: azterbide erretorikoa, Perelmanen urratsetan egina (Michel Meyer eta Olivier Reboul dira nabarmenenak); azterbide epistemologikoa, batez ere Jean-Blaize Grizek eta Georges Vignauxek erabili dutena; azterbide sozioenuntziatiboa, Christian Plantinek eta Uli Windischek saiatu dutena; eta, azkenik, Philippe Bretonen azterbidea, argumentazioaren alderdi etikoa azpimarratzen duena.

Atal honetan, ezinezkoa da horiek guztiak kontuan hartzea; bestalde, hor aipatzen ez diren batzuk gogoan izango ditugu, “argumentazioa hizkuntzan” izeneko teoria, adibidez. Arreta apur bat eskainiko diegun teoriak honako hauek dira: Else M. Barth eta Erik C. W. Krabberen dialektika formala, Frans van Eemeren eta Rob Grootendorsten pragma-dialektika, J. Anthony Blair eta Ralph H. Johnsonen logika informala eta Jean-Claude Anscombe eta Oswald Ducroten “argumentazioa hizkuntzan”. Azken azpiatal batean, zertxobait esango dugu Michel Meyerren problematologiaz, Jean-Blaize Grizeren logika naturalaz eta Jürgen Habermasek argumentazioaren teorian izan duen eraginaz.

5.1. Dialektika formala

“Dialektika” hitzak, hemen, liskar bati amaiera ematera bideratua dagoen eztabaida kritikoa adierazten du, eta “formal” hitzak zorrozki arautua esan nahi du (ikus van Eemeren eta Grootendorst 1992). Else Barth eta Erik Krabbe dira dialektika formalaren bultzagileak. *From axiom to dialogue* (1982) liburuan plazaratu zuten beren ikuspegi teorikoa. Arrazoibidea honela interpretatzen dute: iritzi edo jarrera baten aurkezlearen eta aurkari baten (edo gehiagoren) arteko dialogoa da. Biak ahalegintzen dira elkarrekin ikusten ea iritzi edo jarrera hori arrakastaz defenda daitekeen kritikarien erasoekin kontra. Aurkezleak bere alde erabil dezake aurkariak aitortzen eta onartzen diona. Aurkezlea bide hauetakoren batez balia daiteke bere adierazpenen kontrako erasoekin aurre egiteko: (1) bere ikuspuntuaren defentsa egin, edo (2) kontraerasoa hasi aurkariak onartu dion zerbaiten kontra. Azken kasu horretan, aurkaria behartua dago lehen amore emanez onartu duena defendatzera. Ondorioa honako hau izan daiteke: hasieran onartzen ez zuen zerbaiten alde egin beharrean aurkitzea, lehen hori bera defendatzen zuen eta orain eraso egiten dionaren kontra. Hemendik onura atera dezake adierazpenaren (*claim* delakoaren) aurkezle edo proposatzaileak. Beraz, aurkezlea abilki eta trebeki saiatzen da aurkaria egoera horretara eramaten, azken horrek zertan amore eman duen kontuan edukiz.

Van Eemeren eta Grootendorstek galdera hau egiten dute: Dialektika formalak deskribatzen duen egoerak ba ote du zerikusirik egiazko argumentazioarekin? Egoera hori artifiziala iruditzen zaie. Nekez aurkituko omen litzateke horrelako egoerarik benetako eztabaida batean.

5.2. Pragma-dialektika

Frans H. van Eemeren eta Rob Grootendorstek 1984an aurkeztu zuten argumentazioaren teoria hau eta geroztik liburu eta artikulua asko dituzte argitaratu emanak beren eredu teorikoaren gainean. Plantinek (1998) *nouvelle dialecti-*

que esaten dio argumentazioaren teoria “pragma-dialektikoari” eta arauemailea dela dio, zeren iritzi-ezberdintasunen konponbiderako proposatzen duen metodoa, debatea, arrazionala baita, erregela-sistema bat errespetatzen duenez.

Teoria honek eta aurrekoak izenaren parte bat berdina dute, “dialektika”, baina ez bestea. Dialektika *formala* da aurrekoa; dialektika *pragmatikoa*, edo *pragma-dialektika*, hau. Izena desberdina izateak orientazioa ere desberdina dela esan nahi du. Sortzaileen arabera, pragma-dialektika *pragmatika arauemailea* bezala defini daiteke. Pragmatika arrazoi honengatik: edozein diskurtso mota hizketa-ekintzak trukatzeari den aldetik aztertzen delako. Eta arauemailea, horren helburua komunikazio-jarduna hobetzea delako.

Dialektika formalak argumentu arrazionalak emateko erregelak ezartzen ditu. Pragma-dialektikak ere jartzen dizkio erregela batzuk eztabaida kritikokoari, baina erregela horiek ez dute aurrekoek zuten helburu bera. Pragma-dialektikak jartzen dituen erregelak zera nahi dute: iritzietan adostasunik ez dagoenean, irtenbidea aurkitzeko zein baldintza bete behar diren erakutsi. Iritzien arteko adostasunik ezari arrazoizko konponbidea aurkitzeko, van Eemeren eta Grootendorstek (1992: 208-209) eztabaidarako prozedura bat, edo aritzeko kode moduko bat, sartu zuten. Prozedura hori oinarritzko 10 erregelatan biltzen da: eztabaida kritikoen “hamar aginduak” izango lirateke.

Eztabaida kritikoa, hizkuntza-erabiltzaile batek (“protagonistak”) ikuspuntu bat aurkezten du eta beste batek (“antagonistak”) ikuspuntu hori zalantzan jarri edo gezurtatu egiten du. Protagonistak bere ikuspuntua defendatzen du argudioren baten bidez eta, oraindik kritika gehiago egiten bazaio, beste argudioren bat ateratzen du lehengo argudioari eusteko.

Iritzietan bat ez etortzeari noiz aurkitzen zaio irtenbidea? Bi aukera daude: (1) protagonistaren argudioak azkenean antagonista konbentzitzea eta honek haren ikuspuntua onartzea, edo (2) protagonistak atzera egitea eta bere ikuspuntua alde bat uztea, antagonistaren kritiken eraginez.

Dialektika formalaren eta pragma-dialektikaren artean bada funtsezko alde bat: pragma-dialektikak, dialogo formaletara eta logika-arauen erabile-rara mugatu gabe, irtenbidea aurkitu nahian sortzen den diskurtsoaren aldi edo faseetan burutzen diren hizketa-ekintza guztiak barne hartzen ditu. Aldi edo faseak honako hauek izango lirateke: konfrontazioaren edo aurrez aurre jartzearen aldia (iritzi-ezberdintasuna agertzen da, ikuspuntu baten eta hori ez onartzearen arteko aurkakotasuna dela medio), hasialdia (garbi gelditzen da protagonista bat eta antagonista bat daudela, baita bakoitzak bere gain hartzen dituen betebeharrak ere, gaiari, prozedurari eta abarri buruzkoak), argudiatzearen aldia (protagonista saiatzen da modu sistematikoan defendatzen bere ikuspuntua antagonistaren erantzun kritikoen kontra), eta amaialdia (ikuspuntuaren protagonistak eta antagonistak erabakitzen dute protagonistak bere ikuspuntuaren aldeko defentsan arrakasta izan duen edo ez).

Erregela pragma-dialektikoak eguneroko hizkeran gauzatzen diren ohiko eztabaidei dagozkie. Eztabaida kritikoaren alderdi guztiak sartzen dira hor, premisen eta ondorioen arteko inferentziatzko lotura logikoak barne.

Ikusker a pragma-dialektikoaren ikuspegitik, argumentazioa diskurtsoak diskurtsoa bera arautzeko daukan tresna bat da. Tresna hori “konponbiderako mekanismoak” esaten zaien artean sartzen da eta horren helburua iritzi-ezberdintasunak aurkitzea eta konpontzea da. Argumentazioa arazoak konpontzeko saio bat bezala ikustea garrantzizkoa da pragma-dialektikoek diotenez, horrela ikusteak ohartarazten baitigu nola dagoen argudioa bestelako jardun interaktibo batzuen barnean sartua. Bestela esateko, argudio jakin bat aztertzean, hori erlatibizatu egiten da, diskurtsoaren testuinguru zabalago baten barnean kokatzen da eta testuinguru horrek gidatzen du analisisa, jokoan zer dagoen zehaztuz.

Bestalde, argumentazioa konponbide modu bat bezala ikusteak esan nahi du argudioaren antolaketa elkarreragin- edo interakzio-printzipio orokorren argitan ulertu behar dela. Ikusker a pragma-dialektikoan, Searleren hizketa-ekintzen teorian eta Griceren kooperazio-printzipioan dauden intuizioek zubiarena egiten dute argumentazioaren antolaketa bereziaren eta diskurtsoa eta elkarreragina antolatzen dituzten printzipio orokorren artean.

5.3. Logika informala

J. Anthony Blair eta Ralph H. Johnson dira, Toulmin eta Perelmanen lanek eraginda, 1970eko hamarkadaren hasieran Ipar Amerikan sortu zen mugimenduaren abiatzaileak. Mila bederatziehun eta hirurogeita hemezortzian *Informal Logic* aldizkaria argitaratzen hasi ziren. Logika informala ez da logika mota berri bat. Zer da, orduan? Plantinen (1996: 12) hitzetan, “‘logika ez-formala’ esloganaz baliatuz baztertu egiten dute argumentazioaren analisisa soilik logika elementalari atxikia dagoelako ikusmoldea”. Logika informala eguneroko hizkeran egiten den argumentazioa aztertzeko bide bat da, bide arauemailea. Kontuan izan behar da eguneroko hizkera logika formalak aztertzen duena baino zabalagoa dela. Logikari informalaren helburua honako hau da: argumentazioa interpretatu, ebaluatu eta ulertzeko arauak, irizpideak eta prozedurak garatzea. Programa honen arabera, argumentazioaren baliagarritasuna eta indarra ez da logika deduktiboko baliagarritasunaren berdina. Blair eta Johnsonek diotenez, premisek, ondorioa atera ahal izateko, hiru irizpide hauek bete behar dituzte: (1) egokitasuna, (2) nahikotasuna, eta (3) onargarritasuna. *Egokitasunari* galdera hau dagokio: premisen eta ondorioaren eduki edo gaien arteko lotura egokia eta behar bezalakoa al da? *Nahikotasunari* dagokiona, aldiz, da ea premisek ematen dituzten frogak aski diren ondorioa ateratzeko? *Onargarritasuna* dela eta, galdera hau egin behar da: premisak egiazkoak, probableak edo, bestela, onargarriak al dira?

Emeren eta lankideen (1996) ustez, aurreko hiru irizpide horiek ez dira oraindik behar bezala zehaztu. Bestalde, logika informala, autore horien arabera, argumentazioaren teoria ontzeko saio bat besterik ez da, ez da argumentazioaren teoria landu izatera iritsi. Gainera, irtenbidea aurkitu behar die arazo hauei: nola ebaluatu argumentazioa, nola identifikatu falaziak, nola aztertu argudioen egiturak, eta abar. Helburuei eta azterketa-eremuari dagokiernez, logika informalaren eta pragma-dialektikaren artean ez omen dago alde handirik; alde nagusia puntu honetan datzala diote: logika informalak batez ere premisen eta ondorioen arteko lotura hartzen duela kontuan; pragma-dialektikak, aldiz, eztabaida kritikoaren alderdi eta aldi edo urrats guztiak. Azkenik, logika informalaren eta pragma-dialektikaren arteko beste alde bat da lehenengoa, pragma-dialektika ez bezala, arrazoibidearen beste erabilera batzuez ere arduratzen dela; pragma-dialektikak iritzi-ezberdintasunei irtenbidea aurkitzera bideratua dagoen arrazoibideaz dihardu.

Ralph Johnstonek, 2000. urtean argitaratu zuen *Manifest rationality* izeneko liburuan, behin eta berriz adierazten du, egokia izateko, argudioaren teoriak kontuan hartu behar dituela argudioaren hiru dimentsio hauek: *produktua* dela, *prozesua* dela eta *praktikaren produktu* dela.

5.4. Argumentazioa hizkuntzan

Argumentazioaren ikusmolde berezi hau Frantzia garatu zen 80ko hamarkadan, horren sustraiak 70ekoan badaude ere. Jean-Claude Anscombe eta Oswald Ducrotek garatu zuten ikusmolde hau 1983an kaleratu zuten *L'Argumentation dans la langue* liburuan. Bertan, "argumentazio" nozioaren definizio berri bat ematen dute, perpausaren linguistikaren arlotik begiratu. Plantinek (1996) dio ikusmolde hau argumentazioaren gainerako ikerketetatik bereiz kokatzen dela. Beharbada horregatik, Breton eta Gauthierrek (2000) ez dute aipatu ere egiten teoria hau beren liburuan.

Argumentazioa "hizkuntzan" teoriaren tesia-edo honako hau da: hizkuntza-adierazpen guztiak argudiozkoak izatera bideratuak daude nolabait, hau da, ondorioen batera zuzenduak daude. Edozein adierazpen edo perpausetan dago behartze moduren bat ondorio jakin bat ateratzera bultzatzen duena, behartze hori batzuetan beste batzuetan baino indartsuagoa bada ere. Bestela esateko, edozein adierazpenek dialogoaren jarraipena zuzendu eta bideratu nahi du. Hizkuntza ez da argudiatzeko erabil daitekeen zerbait bakarrik. Hizkuntzak berez du argudiatzeko zeregina; adierazpenen egiturak berak berez dakarren zerbait da hori.

Ikuspegi hau argudiozko lotura edo kateamenduaren definizio honetan oinarritzen da: argudioen lotura edo katea ondorio bat ateratzera bideratua dagoen adierazpen sail edo segida bat da. Adierazpen batzuk argudio gisa eta

beste batzuk haietatik ateratzen diren ondorio gisa aurkezten baditu hitzuna, orduan adierazpen segida hori argudiozkoa da. Horrela, segida hau, “Ia zortziak dira, mugi zaitetz”, argudiozko loturatzat har daiteke; hor, “ia zortziak dira” adierazpenak argudioarena egiten du, “mugi zaitetz” ondorioari indar handiago emateko. Adibide horretan, esplizituki ematen dira argudioa eta ondorioa, baina bata nahiz bestea inplizituak ere izan daitezke.

Hizkuntzak argudiatze-zeregina duela esatean, zer adierazi nahi da? Bada, hau: adierazpen edo perpaus sail bat argudiozkoa dela esan daiteke, ez bakarrik adierazpen horietan esaten denagatik, baizik baita —eta batez ere— adierazpenen egituragatik eta adierazpen horietan dauden hizkuntza-markengatik. Horrela, “ia” hitzak funtsezko eginkizuna du goiko adibidean, baina ematen duen egiteko informazioagatik baino gehiago beste arrazoi honengatik: argudioarena egiten duen esaldian dagoelako eta berak eragiten dituelako atera daitezkeen ondorioak. Izan ere, adibide horretan “ia” erabilizteak nahitaez eragiten ditu “berandu da”, “mugi zaitetz” edo antzeko ondorioak; “ia” markak ez du aukerarik ematen “goiz da” edo “zaude lasai” bezalako ondorioak ateratzeko.

Beraz, hizkuntzan badira morfema edo egitura batzuk batez ere beren argudio-balioak definitzen dituenak. Hona adibide batzuk: “ia”, “bakarrik”, “ozta-ozta”, “ere”, “baina”, “oraindik”, “ba- ere”, “gutxi(k)”, “gainera”, “zeren”, “hala”, “oso”, “-egia”, “baino gehiago” eta abar. Morfema horiek argudio-indar eta argudio-norabide berezia ematen diote diskurtsoari, *topos* jakin bat abian jartzen dutenez. Anscombe eta Ducroten oinarritzeko ideia da diskurtsoaren edozein ataletan dialogo bat dagoela, esplizitua nahiz inplizitua. Ideia hori azaltzen dute beren “polifoniaren” edo “ahots-aniztasunaren” teorian. Teoria honen esanahia ulertzeko, har dezagun ezezko perpaus bat: “Pareta hau ez da zuria”. Perpaus horrek dialogo bat inplikatzeko, “Pareta hau zuria da” dioen, edo gutxienez hori uste duen, norbaitekin. Bigarren ahots (isil) hori agerian jar daiteke, Ducrot eta Anscombreren arabera, “Pareta hau ez da zuria” perpausa aztertuz horren egiturak bi ikuspuntu bateraezin hauek edukiko balitu bezala:

- (a) Pareta hau zuria da.
- (b) “Pareta hau zuria da” ikuspuntua ez da zuzena.

Polifonia deritzan fenomenoak ez da ezezko perpausetan bakarrik ageri. Hona adibide batzuk:

- Paulo aberatsa da, baina ezkondua dago.
- Salome ona da, baina alferra.
- Damaso alferra da, baina ona.

“Argudiozkotasuna” hizkuntza-erabilera ororen ezaugarri orokorra delako ideari eusten Ducrot eta Anscombe bakarrak direla esan daiteke. Argumentazioaz diharduten teorialari eta ikertzaile gehienek uste dute argudiozko diskurtsoan hizkuntza modu berezi eta espezifikoko erabiltzen dela eta diskurtso mota horrek bere zeregin berezia duela komunikazio eta harreman mailan. Ducrot eta Anscombreren hurbilketa deskribatzaile hutsa da. Helburua perpausen argudiozko interpretazioan zerikusia duten elementu sintaktiko eta semantikoak hizkuntzalaritzaren ikuspegitik deskribatzeko tresnak sortzea da, eta ez arauak eta irizpideak ematea argumentazioa ebaluatzeko.

5.5. Beste ikusmolde batzuk

Michel Meyerren (1982) *problematologia*, Jean-Blaize Grizeren (1990) *logika naturala* eta Jürgen Habermasen eragina hartu duten hurbilketa teorioak aipatuko ditugu hemen.

Problematologia 1980ko hamarkadaren hasieraz geroztik moldatu du Meyerrek. Problema filosofikoei irtenbidea aurkitzeko eta argumentazioarentzako eredu moduan pentsatua dago. Meyer eszeptikoa ageri da logika formalari dagokionez. Meyerren problematologiaren arabera, problema jakin bati testuinguru jakin batean erantzun bat ematea da argudiozko diskurtsoaren zeregina. Horrez gainera, argumentazioa erantzun bat problematizatzea bezala ere ikus daiteke; hau da, erantzun jakin baten barnean dagoen galde-raz jabetzea bezala. Azken erantzunik ez da espero izan behar, logika formalaren hizkuntza formalean bakarrik eman baitaitezke horrelako erantzunak (logika formalean, izan ere, dudak edo kontraesanezko proposizioek ez dute lekurik). Logika ez-formalean ezin da inola ere ziurtatu jarri den galdera baten ez duela galdera irekia izaten segituko. Problematologian ez dago lekurik logika ez-formalarentzat baizik; honek zuzentzen du Meyerrek “arrazoibide ez-hertsatzailea” deitzen duena.

Logika naturalaren teoriaren abiapuntuan logika formalak ez gogobetetzea dago, problematologiaren kasuan bezalaxe. Aztergai nagusia iragarki, politikoen hitzaldi eta politika-testuetako eguneroko diskurtsoa da. Argudiozko testuen “logika” azaldu nahi du, “egia” eta “baliozkotasuna” bezalako kontzeptu *a priori* normatibo guztiak baztertuz. Hemen, “logika” hitza ez dagokie arazoibide deduktibo baliodunaren sistema logiko formalei, baizik eguneroko argumentazio eta arazoibidean erabiltzen diren leku komun (*topoi, loci*) eta erregelei. Logika naturalaren helburua, hortaz, ez da normatiboa, deskribatzailea baizik. Argumentazioan erabiltzen den hizkuntza moduari dagokionez, honako kontzeptu hauek aipagarriak dira: eskematizazio abstraktuak, “koherentziarik eza” eta “kontraesana” adibidez, eta eragiketa logiko diskurtsiboak, koherentziarik eza edo kontraesana sortzea edo ezabatzea.

Habermasen eragina hartu duten teorialarien artean, Kopperschmidt da aipagarriena. Hau, 1970eko hamarkadaren erdialdean hasita, argumentazioaren teoria normatibo bat lantzen saiatu da, non erretorika klasikoko hainbat intuizio *speech acts* edo hizketa-ekintzen teoriako, testu-hizkuntzalaritzako eta Habermasen teoriako intuizioekin elkartzen diren.

Dударik gabe, jende gehiago ari da lanean argumentazioaren eremuan. Ikuspuntu teoriko desberdinekin, autore askok dihardute argumentazioarekin zerikusia duten gai asko ikertzen, hala nola, argudiozko diskurtoaren prozesaketa kognitiboa, argudiatzeko trebetasunaz jabetzea, argudioak ekoiztea eta ulertzea, argudiozko testuak idaztea, argudiatzean abian jartzen diren eragiketa psikologikoak, argudiatzen den egoeraren ezaugarriak, argudiatzeko trebetasuna irakastea, baliozkotasuna, adierazi gabeko premisak, argumentazio-eskemak, argumentazio-egiturak, argumentazioa arlo edo kultura berezietan eta abar.

Lan honetan, historian zehar argumentazioari buruz sortu diren teoria nagusiak, edo hobeki esateko, teoria nagusietako batzuk aurkeztu nahi izan dira. Antzinateko Greziatek abiatu gara, hor kontuan hartu ditugularik sofistak eta batez ere Aristoteles. Ondoren, sartu-irten bat egin dugu antzinateko Erroman Zizeronen eta Kintilianoren lanen eta autore ezezaguneko *Rhetorica ad Herennium* delakoaren berri emateko. Hurrengo atala argumentazioaren teoriaren beheraldi luzeari eskaini diogu. Stephen Toulmin eta Chaïm Perelmanek 1958an ekarri zuten argumentazioari buruzko estudioaren berpizkundearen txanda izan da gero. Eta, azken atalean, bide-aurreko horien aitzindari-lanari jarraituz, hurrengo hamarkadetan agertu diren teoria ugarietako batzuk aztertu dira.

Erreferentziak

- AINTZIART, Piarres. 1987. "Aristotele". In P. IZTUETA (zuz.), *Filosofia. Hiztegia*. Donostia: UZEI.
- ANSCOMBRE, Jean Claude eta Oswald DUCROT. 1983. *L'Argumentation dans la langue*. Brusela: Mardaga.
- ARISTOTELES. 1967. *Topiques*. Paris: Les Belles Lettres. [Jacques Brunschwigek argitaratu eta itzulua].
- ARISTOTELES. 1991. *On Rhetoric*. Oxford: Oxford University Press. [George A. Kennedyk itzulua].
- ARISTOTELES. 1994/1998. *Rhetoric* [W. Rhys Robertsek itzulua]. <http://libertyonline.hypermall.com/Aristotle/Rhetoric/Rhetoric.html>
- ARISTOTELES. 2001. *Retórica*. Madril: Alianza. [Alberto Bernabéren itzulpena eta oharrak].
- BARTH, Else M. eta ERIK C.W. KRABBE. 1982. *From axiom to dialogue: a philosophical study of logics and argumentation*. Berlin: Walter De Gruyter.
- BARTHES, Roland. 1994. "L'ancienne rhétorique". In R. BARTHES, *Oeuvres complètes (vol. III)*. Paris: Seuil.

- BRETON, Philippe et G. GAUTHIER. 2000. *Histoire des théories de l'argumentation*. Paris: La Découverte.
- CASSIN, Barbara. 1990. "Bonnes et mauvaises rhétoriques: de Platon à Perelman". In M. MEYER et A. LEMPEREUR (arg.), *Figures et conflits rhétoriques*. Brusela: Éditions de l'Université de Bruxelles.
- COMPAGNON, Antoine. 1999. "La réhabilitation de la rhétorique au xx^e siècle". In M. FUMAROLI (zuz.), *Histoire de la rhétorique dans l'Europe moderne (1450-1950)*. Paris: Presses Universitaires de France.
- CORBETT, Edward P. J. 1986. "The changing strategies of argumentation from ancient to modern times". In J. L. GOLDEN et J. J. PILOTTA (arg.), *Practical reasoning in human affairs: Studies in honor of Chaim Perelman*. Dordrecht, Holanda: Reidel.
- DANBLON, Emmanuelle. 2003. "La rhétorique: art de la preuve ou art de la persuasion?" *Revue de Métaphysique et de Morale* 2/2010.
- DESCARTES, René. 1997. *Metodoari buruzko diskurtsoa. Meditazio metafisikoak*. Bilbo: Klasisikoak.
- DUCROT, Oswald. 1980. *Les échelles argumentatives*. Paris: Éditions de Minuit.
- EEMEREN, Frans H. van et R. GROOTENDORST. 1984. *Speech acts in argumentative discussions. A theoretical model for the analysis of discussions directed towards solving conflicts of opinion*. Dordrecht: Mouton de Gruyter.
- EEMEREN, Frans H. van et R. GROOTENDORST. 1992. *Argumentation, communication, and fallacies: A pragma-dialectical perspective*. Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum Associates.
- EEMEREN, Frans H. van et R. GROOTENDORST. 1997. "Argumentation". In T. A. van DIJK (arg.), *Discourse as Structure and Process*. Thousand Oaks, CA: Sage Publications.
- EEMEREN, Frans H. van et R. GROOTENDORST. 2004. *A Systematic Theory of Argumentation: The Pragma-Dialectical Approach*. Cambridge: Cambridge University Press.
- EEMEREN, Frans H. van, Rob GROOTENDORST et Tjark KRUIGER. 1987. *Handbook of Argumentation. A Critical Survey of Classical Background and Modern Studies*. Dordrecht, Cinnaminson: Foris.
- EEMEREN, Frans H. van, Rob GROOTENDORST et Francisca SNOECK HENKEMANS (arg.). 1996. *Fundamentals of argumentation theory. A handbook of historical backgrounds and contemporary developments*. Hillsdale, N.J.: Lawrence Erlbaum Associates.
- FUMAROLI, Marc. 1999. "Préface". In M. FUMAROLI (zuz.), *Histoire de la rhétorique dans l'Europe moderne (1450-1950)*. Paris: Presses Universitaires de France.
- GAUTHIER, Gilles. 2007. "Editorial Argumentation in the American Press. A Look at the New York Times and Washington Post". http://www.com.ulaval.ca/personnel/professeurs/gilles_gauthier/Editorial_Argumentation.pdf
- GOLDER, Caroline. 1996. *Le développement des discours argumentatifs*. Lausanne: Delachaux et Niestlé.
- GRIZE, Jean-Blaize. 1990. *Logique et langage*. Paris: Ophrys.
- HALSALL, Albert W. 1989. "La rhétorique en 1990". *Texte* 8/9: v-xviii. <http://www.texte.ca/intro8.pdf>
- HAMBLIN, Charles I. 1970. *Fallacies*. Londres: Methuen.
- JOHNSON, Ralph H. 2000. *Manifest rationality: A pragmatic theory of argument*. Mahwah, N.J.: LEA.
- KENNEDY, George A. 1991. *Aristotle: On rhetoric — A theory of civic discourse*. New York: Oxford University Press.
- KOYRÉ, Alexandre. 1962. *Introduction à la lecture de Platon*. Paris: Gallimard.

- MARGOLIN, Jean Claude. 1999. "L'apogée de la rhétorique humaniste". In M. FUMAROLI (zuz.), *Histoire de la rhétorique dans l'Europe moderne (1450-1950)*. Paris: Presses Universitaires de France.
- MARROU, Henri Irénée. 1948. *Histoire de l'éducation dans l'antiquité*. Paris: Seuil.
- MEYER, Michel. 1982. *Logique, langage et argumentation*. Paris : Hachette.
- PERELMAN, Chaïm eta L. OLBRECHTS-TYTECA. 1958. *Traité de l'argumentation: La nouvelle rhétorique*. Brusela: Université de Bruxelles (gaztelaniaz: *Tratado de la argumentación: La nueva retórica*. Madrid: Gredos, 1989).
- PERELMAN, Chaïm. 1984. "The New Rhetoric and the rhetoricians". *Quarterly Journal of Speech* 70: 188-196.
- PLANTIN, Christian. 1990. *Essais sur l'argumentation: introduction à l'étude linguistique de la parole argumentative*. Paris: Kimé.
- PLANTIN, Christian. 1996. *L'argumentation*. Paris: Seuil.
- PLANTIN, Christian. 1998. "Les raisons des émotions". In M. BONDI (arg.), *Forms of argumentative discourse. Per un'analisi linguistica dell'argomentare*. Bologne: CLUEB.
- SPENCE, Gerry. 1995. *How to Argue and Win Every Time, At Home, At work, In court, Everywhere, Everyday*. New York: St. Martin's Press.
- REICHELT, Stefan. 2008. *The history of rhetoric and modern rhetorical analysis*. Pro Scientia, Graz. http://www.proscientia.at/uploads/media/Stefan_Reichelt_-_The_History_of_Rhetoric_and_Modern_Rheto_.pdf
- TOULMIN, Stephen. 1958. *The uses of argument*. Cambridge: Cambridge University Press.
- WALTON, Douglas. 1992. *The place of emotion in argument*. Pennsylvania: The Pennsylvania State University Press.
- WITTGENSTEIN, Ludwig. 1953. *Philosophical Investigations (PI)*. Oxford: Blackwell. [G.E.M. Anscombe eta R. Rheeseek argitaratua, eta G.E.M. Anscombek itzulia].